

Desjabetze bidezko metaketa berriztagarria



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Zertara dator gure herria zentral eolikoz eta eguzki-plakaz betetzeko urgentzia hau? Bistan da, arrazoi agerikoena klima aldaketari erantzuteko premia dela, erregai fosilak iturri berriztagarriekin ordezkatzekoa. Hain zuzen, hori omen da Europako funtsen zein estatu eta autonomietatik bideratzen ari diren gainontzeko funts publikoen helburua. Hala ere, funts horiek betiko zaku berean amaituko dute, hau da, Acciona, Iberdrola, Siemens Gamesa eta energia enpresen *dream team*-a osatzen duten gutxi horien eskuetan. Sorpresa handiegirik ez, bultzada publikoa beti izan da berriztagarrien garapenaren ezinbesteko baldintza, eta beraz, inbertsio publiko horren atzean ez dugu topatuko gobernuen kontzientzia ekologistaren bat-bateko esnatzerik, ez energia-merkatua demokratizatu eta deszentralizatzeke xederik.

Berriztagarrien ekoizpena gidatzeko hautagai aproposenak betiko energia-ekoizleak izateak aukera logikoena dirudi, errealistena urgentiaren aurrean.

Inbertsio publikoaren atzean ez dugu topatuko gobernuen kontzientzia ekologistaren bat-bateko esnatzerik, ez energia-merkatua demokratizatu eta deszentralizatzeke xederik

Baina egia deseroso bat ezkututzen da horren atzean: erregai fosilak direla forma, baina irabazi pribatuak funtsa. Horren erakusgarri da berriztagarriak gehien garatu diren tokietan erregai fosilen kontsumoa ez dela gutxitu; aitzitik, energia-kontsumoak gora egin du.

Euskal Herriko enpresa kutsatzaileenak itxi eta iturri berriztagarrien ugartzeak, herritarren beharrak asetzeko

oinarrizko ekoizpen-kateak garatu gabe, emisioen zenbakiak apaintzeko balio dezake, baina gure egiazko aztarna ekologikoa berdin-berdin handitzen joango da. Izan ere, petrolioak da kapitalismo garaikidearen zainetan dabilen odola, horrek ahalbidetzen ditu mundu-mailako ekoizpenaren banaketa, gure kontsumoa eta nazioarteko merkataritza, finean, globalizazioa. Hala, industria kutsatzaileen ixtea ere ez da nobedadea: deslokalizazioak dira, ingurumen- eta lan-kostu baxuagoek bultzatuak.

Hemen funtsezko galdera: zer nahi dugu, klima aldaketa gelditu edo klima aldaketara egokitu? Energiaren, elikaduraren eta garraioaren industriaren espropiaziorako kontsentsua eraikitzeari uko egitea, eta trantsizio-ekologiko baterako ezinbestekoa den planifikazio integralaren alde lan ez egitea, klima aldaketa gelditzeari uko egitea da. Desjabetze bidezko metaketa-prozesu berriei, deslokalizazio berriei eta emisio berriei ateak irekitzea da. Konponbideak behar ditugu, eta lehenbailehen, gainera, eta betikoa egiten jarraitzeak aukera pragmatikoena dirudien arren, ez da inoiz konponbidea izango. ●

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA

GIPUZKOA 943 903 450 ARABA 945 712 822 BIZKAIA 946 523 935 NAFARROA 848 870 917



bertoko.eus